

1. Argazki Lehiaketa

PHOTO*formas*

Naturari buruzko argazkiak

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. GAIA

Edozein eskalako naturari buruzko argazkigintza: mineralak, arroak, izaki bizidunak, egitura geologikoak, paisaiak, giza eskuhartzeak, argazkigintza mikroskopikoa...

2. HELBURUAK

Lehiaketak parte-hartzaileen interpretazioak eta beraien naturari buruzko ikuspuntu bereziak aditzera eman nahi du, Arabako Natur Zientzien Museotik.

3. PARTE – HARTZAILEAK

Nahi duen edonork parte har dezake.

4. TEKNIKA ETA ITXURA

Edozein teknika edo prozedura onartzen da: digitala nahiz laborategikoa, zuri-beltzean edo koloretan.

Argazkiak paperez inprimatuak aurkeztu behar dira, 40 x 50 cmko passe-partout batean. Berdin dio posizio horizontala edo bertikala izateak.

5. LANAK BIDALTZEA

Parte - hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu orijinalak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak (finalistak, ohorezko aipamenak eta antzekoak onartuko dira). Horretaz aparte, irudiak JPG formatuan, 20 cm-ko alde handienarekin eta 300 ppp-ko bereizmenarekin emango dira, erakusketaren katalogoa egiteko.

Paperez inprimatutako lanak zuzenean, postaz edo mezu bidez emango dira Natur Zientzien Museoa (Jesusen Zerbitzarien kalea, 24 01001 Vitoria-Gasteiz). Argazkiaren atzealdean lanaren izenburua eta egilearen goiburua egon behar dira. Bestalde, itxitako gutun-azal batean lanaren izenburua, goiburua, egilearen datuak (izena eta abizenak; helbidea; telefonoa eta posta elektronikoa) egongo dira. Horiez gain, irudi eskubideen emateari eta datuen babesari buruzko

dokumentua ere gutun-azal honetan sartuko da, behar bezala beteta (Alavesiaren web orrialdean <http://alavesia.org/> aurki daitekeen I Eranskina). Bukatzeko, lanaren izenburua eta egilearen goiburua agertu behar dira berriro gutun-azal honen kanpoaldean.

Artxibo informatikoak e-mailaren bidez bidaliko dira Photoformas@alavesia.org helbidera aipatutako epearen barruan. Egilearen goiburua mezuaren testuan ere agertuko da.

6. JASOTZEKO EPEA

Lanak jasotzeko epea, bai paperez bai interneten bidez, 2015ko maiatzaren 12tik 24ra izango da, Museoko ordutegiaren barne. Posta – bidalketak eta mezu bidez emandakoak irteera data aipatutako epearen barruan badago onartuko dira bakarrik.

7. EPAIMAHAIAREN EPAITZA, ERAKUSKETA ETA SARI – BANAKETA

Aurkeztutako lanen artean Epaimahaiak 30 lan aukeratuko ditu. Lan horiekin Katalogoa prestatuko da eta Museoko behin behineko erakusketa aretoan erakutsiko dira lehendabizi eta Gasteizko eta beste herrietako aretoetan geroago.

Epaimahaiak horietako 30 lanen artean hiru aukeratuko ditu lehenengo saria eta bi akzesit esleitzeko.

Epaimahaiaren epaitza 2015ko ekainaren 1etik 5era bitartean gertatuko da eta ekainaren 9an jakinaraziko da Alavesiaren web orrialdean <http://alavesia.org/>

Erakusketa irailean eta urrian gertatuko da Museoan. Sari-banaketa erakusketaren inaugurazio egunean egingo da.

8. SARIAK ETA SARITUTAKO LANEN JABETZA

Ondorengo sariak ezarri dira:

- Lehenengo saria: 600 euro
- Bi akzesit 200 eurokoa bakoitza

Sari bakoitzaren zenbatekoari indarreko zerga-legerian aurreikusitako atxikipenak ezarriko dizkio.

Saritutako hiru lanak Alavesiaren eskutan geratuko dira eta lan horiek argitaratzeko nahiz kopiaitzeko eskubidea, edozein euskarritan, beretzat gordetzen du, beti ere, egilearen izena aipatuz.

Edozein sari esleitu gabe gera daiteke aurkeztutako lanek behar adina kalitaterik ez badute Epaimahaiaren iritziaren arabera.

9. EPAIMAHAIA

Alavesiak – Arabako Natur Zientzien Museoaren Lagunen Elkarateak – izendatuko du.

Epaimahaiak lanen kalitate zientifikoa, artistikoa eta teknikoa balioztatuko ditu eta lehiaketaren gaiarekin lotura ere bai.

Epaitza apelaezina izango da.

10. LANAK ITZULTZEA

Erakusketarako aukeratu gabeko argazkiak 2015ko ekainaren 10etik aurrera berreskuratu ahalko dira Arabako Natur Zientzien Museoan.

Erakusketarako aukeratuak Alavesiaren eskura geratuko dira urtebetez Gasteizko eta beste herrietako aretoetara eraman ahal izateko.

11. DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera eta erasten den formularioa (I Eranskina) betetzearen bidez, parte-hartzaile bakoitzak baimena ematen du bere datu pertsonalak erabiltzeko eta Alavesiaren datu - baseari gehitzeko.

Halaber, parte- hartzaileek eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabil ahal dituzte. Horretarako eskaera alavesia@alavesia.org helbidera bidali beharko dute.

12. ARGIBIDEAK

Lehiaketarekin erlazionatutako edozein zalantza e-mailaren bidez kontsulta daiteke hurrengo helbidean: Photoformas@alavesia.org

13. OHARRAK

Parte – hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du. Parte hartzeak oinarri guztiak onartu direla esan nahi du. Parte hartzaileak lehiaketara aurkezten dituen lanen egilea eta titularra dela adierazten eta bermatzen du. Halaber parte - hartzailearen ardura izango da argazki bakoitzean ager daitezkeen pertsonen baimena izatea deitutako ekintzarako, baldin eta argazki hori leku publiko batean eta legezko eran eginga ez badago, bere gain hartuko duelarik irudi eskubideei dagokien edozein erreklamazio. Aurretik baziren argazkien egileen autore eskubideak ez betetzeagatik sortu daitezkeen eztabaidetan ere arduradun bakarra izango delarik. Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituen lan oro, automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko da. Antolakuntzakoek ez dute euren gain hartzen bai bidalketan bai muntaian edo erakusketaren zehar, beraiei ez dagozkien arrazoiengatik, lanak galdu edo hondatu izanaren ardura. Bilgarri egokia erabiltzea gomendatzen da. Aurreikusi ez den zeinahi gertakari antolakuntzak, edo, hala badagokio, epaimahaiak interpretatuko du.

